



Olatz Arrietak hasiera eman dio 2019ko txotx denboraldiari

📅 Urt 17, 2019 🌐 Ekitaldiak, Sagardoa, Sagardotegiak 💬 0 comments



“Gure Sagardo Berria” oihu eginda, Olatz Arrieta kazetariak 2019ko txotx bolada ireki du Astigarragako Gartziategi sagardotegian, XXVI. Sagardo Berriaren Egunaren ospakizunean. Aldez aurretik, sagarrondo berri bat landatu du Sagardoetxeako sagastian.

Ekitaldia eguerdiko 12:00etan hasi da **Sagardoetxean** prentsaurrekoarekin eta bertan izan dira **Zorione Etxezarraga** (Astigarragako alkatea), **Bittor Oroz** (Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikagai Politikako Sailburuordea), **Denis Itxaso** (Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Turismo, Gazteria eta Kiroletako Diputatua), **Ainhoa Aizpuru** (Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia sustapeneko, Landa inguruneko eta Lurralde orekako Diputatua), **Harkaitz Millan** (Basquetour-eko Zuzendaria), **Unai Agirre** (Euskal Sagardoa Jatorri Izendapeneko gerentea), **Joxe Angel Goñi** (sagardogileen bozeramailea) eta **Olatz Arrieta** kazetaria.

Prensaurrekoaren ostean, Olatz Arrietak **sagarrondo** berri bat landatu du Sagardoetxeako sagastian eta ondoren, ekitaldiko unerik garrantzitsuena iritsi da: **Astigarragako Gartziategi sagardotegian** “Gure Sagardo Berria” esanda, Olatz Arrietak lehen kupela ireki du eta honekin batera, **2019ko sagardo denboraldi berria ireki da.**


Sagardoa


2018ko uztarekin **11,78 milioi litro** sagardo ekoiztu dira Euskal Herrian. 1.500.000 litro sagardo bertako sagarrarekin egindakoa eta Euskal Sagardoa Jatorri Izendapenekoa da. Guztira 50 sagardotegik egin dute Euskal Sagardora bideratutako sagardoa: Gipuzkoako 43k, Bizkaiako 5ek eta Arabako 2k.

Sagardo dastaketa:

- Begien bistan: Txinparta biziko eta lasto koloreko sagardoak.
- Usaimenean: Sakontasun aromatiko handia, fruta-usainekin.
- Ahoan: Gorputz handiko eta sendotasun nahiz freskotasunaren oreka egokiko sagardoak.

Prensa Dossiera eskuratu





Bilatzailea

Kategoriak

[Agenda](#)

[Argitalpenak](#)

[Azokak](#)

[Berriak](#)

[Ekitaldiak](#)

[Erakusketak](#)



Esperientziak

Formazioa

Gastronomia

Historia

Kultura

Lehiaketak

Museoak

Sagardoa

Sagardotegiak

Sagarra

Sagastia

Turismoa

Artxiboak

Hautatu hilabetea

ZATOZ ETA GOZATU

**SAGARDOAREN
LURRALDEA**

el territorio de la aïda

Kale Nagusia, 48

20115

Astigarraga

Gipuzkoa

LAGUNTZA BEHAR DUZU?

📞 943 550 575

JARRAI IEZAGUZU...



ESPERIENTZIAK

Zure plana erreserbatu

Neurrira egindako esperientziak

Hautatutako ibilbideak

SAGARDOTEGIAK

Sagardotegia erreserbatu

Sagardotegia aukeratu

Garraioa sagardotegietara

SAGARDOETXEA

Sagardoetxea – museoa

Erakusketa eta bisita guneak

Bisita motak

Privacidad - Condiciones

Beste proposamenak hemendik gertu

Sagardotegiaz gozatzeko gomendioak

Nola iritsi eta sarbideak

Nola mugitu

Tarifak eta ordutegiak

Non lo egin

Bisita erreserbatu

Gidak eta informazio praktikoa

Bisita birtuala

Dokumentazio Zentroa

SAGARDO FORUM

AGENDA

BLOGA

HEDAPENA

Informazio orokorra

Boletina

Argazkiak

Buletinera harpidetza

Hitzaldiak

Sare sozialak



EUSKADI
BASQUE COUNTRY



© 2019 Sagardun Partzuergo publiko-pribatua

LEGEZKO INFORMAZIOA

[NOR GARA](#)

[PROIEKTUAK](#)

[AKORDIOAK](#)

[KONTRATATZAILEAREN PROFILA](#)

